



Lehiaren  
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **GIPUZKOAKO INDUSTRIA-INGENIARIEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUEI BURUZKO TXOSTENA**

**Espedientea: LEA/AVC 348-NORM-2019 .**

### **Aurkibidea:**

I. ANTECEDENTES .....	1
II. COMPETENCIA DE LA AVC Y CONSIDERACIONES JURÍDICAS PREVIAS .....	1
III. CONSIDERACIONES A LA VISTA DE LA NORMATIVA DE COMPETENCIA .....	3
1. Funciones propias del Colegio .....	3
2. Miembros del colegio .....	5
3. Visado y otras actuaciones de control .....	5
IV. CONCLUSIONES .....	7

### **Osoko bilkura:**

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, batzordekidea

Enara Venturini Álvarez, batzordekidea eta idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2019ko uztailaren 24an eginiko bileran, goian aipatutako kideak bertan direla, honako txosten hau eman du Gipuzkoako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren Estatutuen inguruan.

### **I. AURREKARIAK**

1. 2019ko ekainaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak idazki bat aurkeztu zuen Lehiaren Euskal Agintaritzan (LEA), Gipuzkoako Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialaren Estatutuen kopia bat erantsita, Lehiaren Euskal Agintaritzak adieraz dezan ea bat datozen lehiari buruz indarrean dagoen araudiarekin.

### **II. LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN ESKUMENAK ETA AURRETIKO GOGOETA JURIDIKOAK**

2. Otsailaren 2ko 1/2012 Legeak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak (LEA legea), erakundeari EAEko merkatuetan zehatzaileak ez diren ekintzen bidez



lehia efektiboa sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau.

Arauei buruzko eskumena, batez ere, LEA legearen 3.5 artikuluan dator araututa, non hau jasota dagoen: «(...) *Era berean, Lehiaren Euskal Agintaritzak lehiari eragiten dioten araugintzako egitasmoei buruzko irizpena emanqo du, baina ez da loteslea izango*».

**3.** Elkargo profesionalen erregulazioak oinarri konstituzionala dauka gure antolamendu juridikoan. Hain zuzen ere, zera ezartzen du Espainiako Konstituzioko (aurrerantzean EK) 36. artikulua: «Legeak elkargo profesionalen araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jardura arautuko du. Elkargoen barne-egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan beharko dute».

Premisa hau izan behar dugu abiapuntu: lanbide kolegiatuen jardueran lehia askea behar da, eta jardura hori guztiz Lehia Defendatzeko Legearen mende dago (uztailaren 3ko 15/2007; aurrerantzean, LDL). Lehiari buruzko araudiarekiko mendekotasuna are gehiago nabarmendu da Erkidegoko Zerbitzuen Zuzentaraua aplikatu ostean sortu diren lege-aldaketa berriekin<sup>1</sup>. Elkargo profesionalen gaineko arauak, bai Estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, EAE), Zuzentaru horren aurretiko erregulazio batean oinarritzen dira: elkargo profesionalen buruzko legean (otsailaren 13ko 2/1974; aurrerantzean, EPL) eta EAEko 18/1997 Legean, tituludun lanbideei eta elkargo eta kontseilu profesionalen buruzkoa. Hala ere, zuzentaruaren transposizioa egiteko Estatuko eta erkidegoetako arau ugari aldaketak eragin dituzte arau horietan eta, ondorioz, elkargo profesionalen jarduteko araubidean. Batez ere hauek dira horiek: 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzkoa (Aterki Legea); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zeinaren bidez zenbait lege aldatzen baitira, zerbitzu-jardueretan askatasunez sartzeari eta aritzeari buruzko legera egokitze (Omnibus Legea); eta Eusko Legebiltzarraren 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko zuzentara egokitze aldera zenbait lege aldatzen dituena.

EELaren xedea hau da: «Tituludun lanbideek Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean aurrera daramaten jarduna eta EAEn bertan diharduten elkargo eta kontseilu profesionalak arautzea, bai eta oinarriko legerian eta/edo arlo horretako legerian jartzen duena ere kontuan hartzea ere». Zioen azalpenak dioenez, EAEk soilik dituen eskumenak erabiliz egin da araudia, Espainiako Konstituzioaren 139. artikulua hartuta izan gabe. Hain zuzen ere, zera xedatzen da artikulua horretan: «Ezin du inolako agintarik neurririk hartu, baldin

<sup>1</sup> 2006/123/EE Zuzentaru, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala (EBAO) L 376/36, 2006ko abenduaren 27koa.



eta neurri horiek, zuzenean edo zeharka, oztopatzen badute Espainiako lurralde osoan gizabanakoek askatasunez zirkulatzea eta bertan ezartzea, eta ondasunek askatasunez zirkulatzea».

Horrenbestez, Lehiaren Euskal Legeak ezartzen duenak arautzen du Gipuzkoako Industria Ingeniarien eta Elkargo Ofiziala (aurrerantzean, Elkargoa); zehazki, 2012an Legea Europako Erkidegoko araudira egokitzeko egindako aldaketen arabera testuak. Arau horren 9. Xedapen Gehigarriak hauxe dio:

«Elkargo profesionalen araubidearen oinarriak arautzen dituzten manamenduak bere osotasunean edo zati batean jasotzen dituzten lege honetako atalak legegintza-sistematikari jarraitzeagatik sartu dira testu honetan. Horren ondorioz, atal horiek ere aldatutzat joko dira agindu haiek aipatu den oinarrizko araudian berrikusten diren unean».

4. Elkargoek arautegia bete beharko dute ez bakarrik estatutuen testu literalak idazteko orduan bakarrik, baizik eta elkargoko beste arau batzuk idazteko orduan (hala nola barne-araubideko erregelamenduak, ezarritako prozedurak eta arau deontologikoak) eta jardunean aritzean ere. Hori dela eta, estatutuen testua kontuan izan gabe, elkargoek ezin dute hartu lehia mugatzen duen erabaki edo gomendiorik, ezta horrelako betebeharrak edo eskakizunik ere, lehia defendatzeko legediaren arau-haustea izan daitezkeelako<sup>2</sup>.

5. Elkargoaren Estatutuei buruzko txosten hau egituratzeko, kategoria materialak hartu ditugu kontuan, hau da, ez diogu jarraitu artikuluen ordenari. Hala ere, argiagoa izan dadin, oinarrizko arauen testuak aipatu ditugu epigrafe bakoitzean, eta adierazi dugu estatutuetako zer manamendutan duten eragina eta zer iritzi dugun.

Halaber, adierazi behar dugu LEAk **bi gomendio mota** egingo dituela txosten honetan: batetik, araudiaren urraketei buruzkoak, eta, bestetik, indarrean dagoen legediaren kontrakoak izan ez arren, lehiari behar baino kalte handiagoa egiten dioten pasarteei buruzkoak. Bigarren gomendio motari dagokionez, lehiari kalte gutxiago egiten dioten aukerak proposatuko ditugu, interes publikoarentzat onuragarriagoak direlakoan.

### III. LEHIARI BURUZKO ARAUDIAREN INGURUKO GOGOETAK

#### 1. Elkargoaren berezko funtzioak

7. Elkargoaren berezko funtzioei dagokienez, hau dio estatutuen 6. artikulua:

<sup>2</sup> LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondoren Elkargo Profesionalei buruzko txostena*. Madril, 2011; 22. or.



«n) Irizpide orientagarriak prestatzea, kostuen tasazioaren eta abokatuen kontuen zinaren ondorioetarako bakarrik. Irizpide horiexek baliatuko dira, era berean, doako laguntza juridikoan kostuen eta eskubideen tasazioaren ondorioetarako dagozkion ordainsariak kalkulatzeko».

**8.-** Omnibus Legeak EPLan eragindako aldaketen ondorioz, aldatu egin ziren elkargo profesionalek bere kideen ordainsarien gainean zituzten eskumenak. Hala, hura indarrean jartzearekin bat (2009ko abenduaren 27a), indargabetu egin zen funtzio hau: «Ordainsarien baremoak ezartzea, zeinek izaera orientagarria baino izango ez duten».

Lege horrek berak EPLan 14. artikulua eta laugarren xedapen gehigarri berriak gehitu zituen. Hona hemen horien literalak, hurrenez hurren:

EPL, 14. artikulua: «Elkargo profesionalek eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionalei buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik ezarri, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

4. Xedapen Gehigarria, EPL: «Elkargoek irizpide orientagarriak prestatu ahal izango dituzte, kostuen tasazioaren eta abokatuen kontuen zinaren ondorioetarako bakarrik. Irizpide horiexek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko».

Bestalde, EELak honako hau dio 24. artikuluan:

«e) Irizpide orientagarriak prestatzea, kostuen tasazioaren eta abokatuen kontuen zinaren ondorioetarako bakarrik. Irizpide horiexek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostuak tasatu ahal izateko.

**9.-** Azpimarratu beharra dago EPLaren laugarren xedapen gehigarri horrek eta EELaren 24. artikuluko e) letrak elkargoei uzten dietela **irizpide orientagarriak** prestatzea, hau da, aholkuak ematea, kostuen tasazioa zentzuz eta ez modu arbitrarioan arazoitzeko helburuarekin. Bide horretan, kontuan hartu behar da **irizpideak arau edo iritzi bat direla, gauzak bata bestetik bereizteko, eta baremo bat, berriz, tarifen taula, zerrenda edo erregistro bat, hau da, prezio finkoak.**

Horregatik, irizpide orientagarri horien helburua bakar-bakarrik kostuen tasazioa eta abokatuen kontuen zina da, eta doako laguntza juridikoan kostuen tasazioaren ondorioetarako dagozkion ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko. Hala, irizpide soilak dira, eta ez ordainsarien baremoak (ez da sartzen alderdi kuantitatiborik, ez erreferentzia-baliorik...), eta, azkenik, irizpide horiek eremu honetatik kanpo baliatzeak lehiaren jokabide murriztailea eta zehagarria izan ahalko litzateke. Elkargoak kasu bakoitza banan-banan informatu behar du, eta ez irizpideak hedatu ezta publikoki jakinarazi ere. **Aurreko oharrak ardura handiz betetzea gomendatzen da, eta aukera bat da, «prestatzea» aditz-forma erabili ordez, «prestatu ahal izan» erabiltzea,**



## **Elkargo Profesionalen Legearen Laugarren Xedapen Gehigarrian ageritako bezala.<sup>3</sup>**

### **2. Elkargoko kideak**

**10.-** Estatutuen 7.3 artikulua honako hau ezartzen du:

«3. Elkargoko kide izateko hiru modu daude, eta modu bakoitzak bere eskubide eta betebeharrak ditu. Hala, elkargokide mota hauek daude:

A motakoak. Jarduneko elkargokideak

B motakoak. Jardunean ez dauden elkargokideak

C motakoak. Gonbidatu gisa atxikitako elkargokideak».

**11.-** Dena dela, EELaren 38.1 artikulua eskubide osoko elkargokideak jardunean daudenen eta jardunean ez daudenen artean baino ez ditu sailkatzen. Horregatik, estatutuetatik ezabatu egin beharko lirateke «C motakoak: gonbidatu gisa atxikitako elkargokideak».

### **3. Onespena eta kontrolerako beste jarduketa batzuk**

**12.-** Estatutuen IX. tituluaren onspenaren edukia, derrigortasuna, prozedura/ebazpena eta onspenaren eskubideak ezartzen dira.

**13.-** Elkargoaren onspenari dagokionez, estatutuen 76. artikulua onspenaren derrigortasuna honako kasu hauetarako bakarrik dauka ezarrita: «indarrean dagoen legeriak jasotzen dituen lan profesionaletarako bakarrik», eta 75.2 artikuluan hauxe dio: «Elkargoaren onspena honako hauek arautzen dute: EAEko 18/1997 Legeak, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoa; 1000/2010 Errege Dekretuak, abuztuaren 5ekoa, eta kasuari aplikatu ahal zaizkion gainerako legeek»<sup>4</sup>.

**14.** Hala ere, estatutuen IX. tituluak ez du ezartzen nori dagokion lan profesionalari onspena emateko eskumena, eta onspen partzialen kasuak ere ez ditu jasotzen. Ildo horretan, eta estatutuek jasotzen dituzten legeetan oinarrituta, Elkargoaren Nahitaezko Onspenari buruzko Errege Dekretuaren (1000/2010, abuztuaren 5ekoa) 3. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoari

<sup>3</sup> IPN/CNMC/035/18, Hori sustatzeko zenbait azterketa eta txosten egoteaz gain, hainbat ebazpen zehatzaile ere badaude hori sakon aztertzen dutenak: SAMAD/09/2013 BIS HONORARIOS PROFESIONALES ICAAH ; <https://www.cnmc.es/expedientes/sdc058716>; SAMAD/02/14 Ingenieros Técnicos Industriales

<sup>4</sup> Elkargoaren onspena nahitaezkoa den kasuak Elkargoaren Nahitaezko Onspenari buruzko Errege Dekretuaren (1000/2010, abuztuaren 5ekoa) 2. artikuluan daude ezarrita (BOE, 190. zk., 2010eko abuztuaren 6a). Ezinbestean Elkargoaren onspena behar izatea honen baitakoa da: lan profesionalaren eta pertsonen osotasun fisiko eta segurtasunaren artean kausalitate-lotura zuzena egotea, eta bide proportzionalena delako; izan kontrolerako bestelako tresnak kontuan hartuta, Elkargoaren onspena da kontrolerako biderik egokiena.



jarraituko zaio. Dekretuak dio, proiektu partzialeko lanen kasuan, nahikoa dela gai nagusian eskudun den elkargoak proiektu osoari ematea onespenera<sup>5</sup>.

Onespeneri buruzko Errege Dekretuko 5. artikuluko 1. apartatuak xedatzen du lana sinatzen duen profesionalak gai nagusian eskumena duen elkargora joko duela, eta, eskumena hainbat elkargo profesionalak badute, onspenera horietako edozeinetan eskuratu ahal izango dela.

Azkenik, Onspeneri buruzko Errege Dekretuaren 5. artikuluko 2. apartatuan hau dago jasota: «Estatuaz beherako eremuko elkargo profesionalak badaude, horietako edozeinetako onspenera lortu ahal izango da»<sup>6</sup>.

**15.-** Hori horrela, elkargoak proiektuen onspenak emateari dagokionez, adierazi behar da elkargoak ez duela mugatu behar industria-ingeniaritza teknikoko tituludunek eta/edo ingeniaritzako graduatuek egindako proiektuetara.

Proiektu partzialak dituzten lanak baleude (ingeniaritza teknikoaz bestelako titulazio bat duen profesional batek egin ahal izan dituenak) nahikoa da onspenera, proiektu osorako, gai nagusian eskumena duen elkargoak egitea<sup>7</sup>.

Onspenera duten proiektuetako gaien eskumena hainbat Elkargo profesionalak badute, lana egin duten profesionalak era berean eska dezakete onspenera horietako edozeinetan.

<sup>5</sup> Onspeneri buruzko Errege Dekretuaren 3. artikulua: Proiektu partzialak dituzten lanen onspenera. «2. artikuluan aurreikusitako derrigortasuna betetzeko nahikoa izango da artikuluko horretan jasotako lan profesionalak, nahiz eta proiektu partzialen bidez garatu edo egin, behin bakarrik egotea onetsita eta kide profesional batek (lanaren gai nagusian gaituta egon beharko du 5. artikuluan aurreikusitakoarekin bat) onestea, eta ez da beharrezkoa izango lan profesionala osatzen duten dokumentuen onspen partziala»

<sup>6</sup> Onspeneri buruzko Errege Dekretuaren 5. artikulua: Lan profesionalak onesteko edo horien onspenera egiteko eskumena duen elkargo profesionala. «1. Errege Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera Elkargoaren nahitaezko ikus-onespenera eskuratzeko, lana izenpetzen duen profesionalak lanaren gai nagusian eskumena duen elkargo profesionalera joko du; lan osoaren ardura duen profesionalak gauzatzen duen jarduerari dagokiona izango da gai hori. Gaiaren eskumena duten zenbait elkargo profesional badaude, profesionalak onspenera horietako edozeinetan lortu ahal izango du. Ondorio horietarako, ulertzen da 2. artikuluko b) eta c) letretan aipatutako eraikuntza-obraen amaierako ziurtagirietako gai nagusiaren baitan obrazuzendaritza eta obra gauzatzeko zuzendaritza daudela. Horregatik, nahikoa izango da gai horretan eskumena duen elkargo baten onspenera. 2. «Elkargo bat eremu nazionalaz beherako elkargo profesionalen arabera egituratzen bada, onspenera nahitaez izan behar duen lan bateko profesional sinatzaileak horietako edozeinetan lortu ahal izango du. Profesionalak onspenera atxikita dagoen elkargoaz bestelako batean eskatzen badu, Elkargo Profesionalari buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legean aurreikusitako komunikazio-mekanismoak eta kooperazio administratiboko sistemak erabili ahal izango dituzte elkargoak».

<sup>7</sup> Espainiako Lehiaren Batzordeak (CNC) hitzarmen bidez ebatzitako CNC S/0002/07 espedientean, Espainiako Arkitektoen Goi Kontseiluarena, Kontseiluak hartutako erabaki murriztailea aztertu zen; haren arabera, arkitekto edo arkitekto tekniko batek sinatu behar zituen segurtasun- eta osasun-azterlanak, eta beste teknikari guztiek sinatutako onspenak baztertu behar ziren. Hitzarmen bidez hartutako erabakian, azterlanek horretarako eskumena duen edozein teknikariren sinadura izan zezaketela ebatzi zen, betiere horien eskumenak eta espezialitateak kontuan hartuta.



**16.-** Elkargoak Administrazio Publikoentzako dokumentuen inguruan egin beharreko kontrolari dagokionez, hauxe dio estatutuen 80. artikulua:

**80. artikulua. Administrazio Publikoentzako dokumentuen kontrola.**

1. Administrazio Publikoen eskumenen arloan eta funtzio administratiboak hobeto betetzearren, elkargoak zenbait hitzarmen egin ditzake Administrazio Publikoekin, dokumentuak eta alderdi teknikoak egiaztatzeko, edota lan profesionaleri dagozkien eta Administrazio Publikoek aplikatu beharrezkotzat jotzen dituzten arauak betetzen direla egiaztatzeko.
2. Halaber, Elkargoak edozein enpresa edo entitaterekin kontratatu ahalko du lanaren alderdi teknikoari buruzko analisi, egiaztapen eta ziurtapen gehigarrien zerbitzuak; betiere, elkargoko kideek proiektatzeko duten askatasuna eta legeek diotena errespetatuta.

**17.-** Goian transkribatutako lehen lerrokadak agerian uzten du «Administrazio Publikoek duten gaitasuna, kasuak banan-banan erabakitzearen eta beren funtzioak hobeto betetzearren, Elkargo Profesionalekin edo beste entitate batzuekin hitzarmenak egiteko edota zerbitzuak kontratatuzeko, dokumentuak, alderdi teknikoak edo lan profesionaleri aplikatu beharrezkotzat jotzen dituzten arauak egiaztatzeko». Hori dela eta, ahalmen hori Administrazio Publikoen antolakuntza-autonomian eta haien eskumenen esparruan sartzen da, eta lehen lerrokadan jaso beharko litzateke aukera hori Administrazio Publikoen ekimenez izan behar dela, eta kasuz kasukoa, 25/2009 Legearen (abendua 22koa, Omnibus Legea, Elkargo Profesionaleri buruzko otsailaren 13ko 2/197 Legea aldatzen duena) bosgarren xedapen gehigarrian jasota dagoenari jarraikiz.

Halaber, gogoratu beharra dago bai Elkargo Profesionalak eta Administrazio Publikoak lehiaren arauen mende daudela. Administrazio Publikoek elkargoek dokumentuak eta beste alderdi batzuk kontrolatzeko aukera legez onartzea ez da eragozpen izan behar, eta merkatutik kanpo utzi estatutuen 80. artikuluan aipatzen diren zereginetarako gaitasun fisikoa eta teknikoa duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Horretan oinarrituta, oso egokia da Elkargoak berak kontratatu ahal izatea 80. artikulua bigarren lerrokadan jasotzen diren zerbitzuak, baina, betiere, zerbitzuen eskaintza librea, elkargoko kideek proiektatzeko duten askatasuna eta legeek diotena errespetatuta, eta hor sartzen da, halaber, lehia defendatzeko legeetan jasota dauden lehiaren kontrako praktikei buruz ezarritakoa.

#### IV. ONDORIOAK

**Lehena.-** Elkargoetako lanbideetan lehia askea egon behar du, eta uztailaren 3ko 15/2007 Legea, Lehia Defendatzeari buruzkoa, osorik bete behar da.



**Bigarrena.-** LEAren Lehiaren Euskal Kontseiluak aldeko irizpena ematen dio Gipuzkoako Industria Ingeniariei Elkargo Ofizialaren Estatutuen aldaketari, baina oharpen hauek egiten dizkio.

- **6.n artikuluari dagokionez: Irizpide orientagarriak prestatzea, kostuen tasazioaren eta abokatuen kontuen zinaren ondorioetarako bakarrik.**

*Prestatzea* aditz-formaren ordean, *prestatu ahal izan* forma jartzea, eta manua zehaztea, kontuan hartuta irizpide orientagarri horiek bakar-bakarrik kostuen tasaziorako eta abokatuen kontuen zinarako direla, eta doako laguntza juridikoan kostuen tasazioaren ondorioetarako dagozkion ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko.

- **7.3 artikuluari dagokionez: Elkargoko kideen tipologia:**

«C motakoak. Gonbidatu gisa atxikitako elkargokideen kategoria» kentzeko eskaera egiten da, EELaren 38.1 artikulua eskubide osoko elkargokideak jardunean daudenen eta jardunean ez daudenen artean baino ez baititu sailkatzen.





- **80 artikuluarri dagokionez: Administrazio Publikoentzako dokumentuen kontrola:**

Zehaztu egin behar da ahalmen hori Administrazio Publikoei dagokiela, eta haien eskariz egin daitekeela, kasuz kasu, Omnibus Legearen, zeinak EPLa aldatzen duen, bosgarren xedapen gehigarriak agintzen duen bezala.